# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia | Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an | 41 ZK.

## A U R K I B I D E A

E SAILA:

**Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaiola hartu beharreko neurriak har ditzan behar adina argibide eman diezaien euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei. Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (2. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—SOS Nafarroako koordinazioko operadore laguntzaileen taldearen egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
—Iruñeko alde zaharrean paradore nazional bat paratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
—Tafallako Luzuriaga enpresako lan-gatazkari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—Iruña-Jaca autobiaren ibilbideari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—Nekazaritza-errentak hobetzeko neurrien kargura 1999an finantzatutako ekintzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
—Gobernuak 2000an zehar diruz lagunduko dituen abeltzainen lehiaketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
—Historia klinikoen artxiboak pribatizatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Tafallako eskualdeko inbertsio plan bati buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Eskolako ikasleen armairuen erabileraren jarraipena egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Lurzati berrantolamenduari dagokionez aurreikusitako jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Euririk egiten ez duelako soroek bizi duten egoera larriari aurre egiteko aurreikusitako ekintzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
—Mahasti berrien kopurua, Europako Batasuneko Erregelamenduari jarraikiz, banatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—Herri-ondasunen defentsan Gobernuak 2000n zehar finantzatuko dituen ekintzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

**E saila:**
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaiola hartu beharreko neurriak har ditzan behar adina argibide eman diezaien euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei

*GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Giza Gaietakko Batzordeak, 2000ko maiatzaren 11n eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaiola hartu beharreko neurriak har ditzan behar adina argibide eman diezaien euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaiola hartu beharreko neurriak har ditzan behar adina argibide eman diezaien euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei

“Nafarroako Gorteek ondokoa eskatzen diote Nafarroako Gobernuari:

1.- Espainiako Gobernuari eska diezaiola lege aldetik hartu beharreko neurriak har ditzan indarra duen legedian biltzen ez diren aferei buruz, euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei behar adina argibide ematearren profesionalen laguntzarekin.

2.- Bere eskumenen esparruan, euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei behar adina argibide eman diezaiela.

3.- Kasu batean zein bestean, errespetatu egin beharko dira lege-, psikologia-, familia- eta gizarte-baldintzak bitartekotza eginez. Bitartekotza horrek behar bezala babestuko ditu bi parteak, balizko elkartzea ahalik eta modurik onenean eta denen bidezko eskubideak zainduz egin dadin.”

**F saila:**
**GALDERAK**

# SOS Nafarroako koordinazioko operadore laguntzaileen taldearen egoerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Mª Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak SOS Nafarroako koordinazioko operadore laguntzaileen taldearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 21eko 24 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari eta osasun arloko bozeramaile Arboniés Bermejo andreak galdera bat egin zuen, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2000ko martxoaren 14an tramitatzeko onartua. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Toki eta egun zehatzetan pertsona zehatz baten heriotza eragin ahal izan zuten arrazoien inguruko hipotesiak, SOS Nafarroari dagokionez geroago planteatzen diren gaien oinarria ustez den horretan sartutakoak, funsgabeak dira, baita erabat onartezinak ere.

Pertsona horren heriotza laguntza medikorik jaso ez izanak eragin zuela zuzenean esatea eta, ondoren, aditzera ematea laguntza hori ez zela ailegatu SOS Nafarroan aldi berean hiru dei jaso zirelako, eta azkenik, ondorio gisa onartzea heriotz hura ez zatekeela gertatuko, beharbada, koordinazioa behar bezalakoa izan balitz, larrialdiaren balioespena egin izan balitz eta lehentasuna larrienari eman izan balitzaio, arinkeria izateaz gain –gehiegi pentsatu gabe adierazia, dudarik ez–, are desegokiagoa da kontuan hartuta nor den galdera egin duena. Bestalde, horrek guztiak garbi erakusten du galdegileak ez duela SOS Nafarroaren funtzionamendua ezagutzen, eta konfiantzarik ez duela unitate horretan lanean aritzen diren langileen gaitasunean. Konfiantza eza hori herritarren artean ere zabaltzea justifikaezina –arrazoigabea baita– izanen litzateke.

Oro har, egoera hau edo pertsonen bizia arriskuan egon daitekeen beste edozein aurreikustea prozesu bat da, eta horren barrenean ekintza desberdinak daude; hasteko, arriskuetarako taldeetan daudenei eskatzen ohi zaie egoerarekin bat datozen jarrerak, ohiturak, azken finean, portaera izatea; amaitzeko, krisiaren aurrean esku hartzean espezializaturik dauden baliabideak –beti mugatuak– aritzen dira, baina ezin da esan a priori azken horiek arrakasta edo helburua lortu dutenik.

Ez du zentzurik, beraz, erantzukizuna, zuzenean edo zeharka, larrialdietako zerbitzuetako langileengan baitatza, leporatzen hasteak, horretarako oinarririk ez dagoelako, eta askoz larriagoa da kontuan hartuta nork egin duen; onartezina, azken finean.

Esanak esan, galderan adierazten diren gai zehatzei buruz hauxe esan behar dut:

1) Datu estatistikoak

Kudeaketa sisteman sartutako deien kopurua (telefonoz eta irratitelefonoz jasotakoak barne), osotara hau da:

| | |
|---|---:|
| 1997. urtea | 842.476 |
| 1998. urtea | 806.525 |
| 1999. urtea | 827.822 |

Larrialdiei kasu egiteko sistema lurraldean banatua dago eta integratua funtzioei dagokienez, eta adierazitako kopuruetan sarturik daude, baturik, SOS Nafarroaren operadoreen aretotik hartutako deiak nola Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroan (CMC) hartutakoak. Azken

zerbitzu hau 1998ko apirilaren 21ean jarri zen abian.

SOS Nafarroaren aretoari atxikitako koordinazioko operadore laguntzaileek zehazki hartutako komunikazioak honakoak izan ziren:

| | |
|---|---|
| 1997. urtea | 842.476 |
| 1998. urtea | 781.758 |
| 1999. urtea | 786.925 |

Beheranzko joeraren arrazoia Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroaren ezarpena da, lehen aipatu denez, eta Nafarroako errepideen egoerari buruzko etengabeko informatzaile automatikoa zerbitzuan jarri izana, hau ere 1998an.

SOS Nafarroak erabilitako baliabideei, haien izaerari eta aktibazioen kopuruari dagokienez, hona hemen datuak, zehaztuta:

| Zerbitzu medikoak: | |
|---|---|
| 1997. urtea | 78.250 |
| 1998. urtea | 80.928 |
| 1999. urtea | 81.211 |

| Anbulantziaz eramandakoak: | |
|---|---|
| 1997. urtea | 17.146 |
| 1998. urtea | 23.737 |
| 1999. urtea | 81.211 |

| Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua | |
|---|---|
| 1997. urtea | 6.190 |
| 1998. urtea | 5.940 |
| 1999. urtea | 5.941 |

| Polizia zerbitzuak | |
|---|---|
| 1997. urtea | 9.722 |
| 1998. urtea | 13.452 |
| 1999. urtea | 19.717 |

| Guardiako farmazietarako zerbitzuak | |
|---|---|
| 1997. urtea | 6.017 |
| 1998. urtea | 6.194 |
| 1999. urtea | 7.272 |

2) Bere gain hartutako zerbitzuak.

SOS Nafarroa da Nafarroako Larrialdietarako Lurralde Planean eta herritarren babesari buruzko legeetan aurreikusirik dagoen Koordinazio Operatiboko Zentroaren (CECOP) komunikazioak kudeatzeaz arduratzen den unitatea. Zentro hori ezarri zen Foru Komunitateko Administrazioaren organoen arteko koordinazio tresna gisa, bai eta honen eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan larrialdiez arduratzen diren beste erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinaziorako ere.

SOS Nafarroak sortu ondoren bere gain hartu duen prestazio egonkor bakarra telealarmaren kudeaketa zuzena izan da; zerbitzu hori, 1997. urtearen amaiera arte, Iruñean kudeatzen zen, kontzesio hartzaile pribatu baten bitartez, eta horrek telealarma zerbitzuari atxikiriko adinduen larrialdi guztiak SOS Nafarroari bidaltzen zizkion. SOS Nafarroak 1997an hartu zuen bere gain, zerbitzua Nafarroa osoari emateko.

Zerbitzu honen bilakaera, erabiltzaileen kopuruari eta sisteman sartutako deien kopuruari dagokienez hauxe izan da:

| Erabiltzaileen kopurua: | |
|---|---|
| 1997. urtea | 247 |
| 1998. urtea | 2.078 |
| 1999. urtea | 2.587 |

| Deien kopurua: | |
|---|---|
| 1997. urtea | 623 |
| 1998. urtea | 15.470 |
| 1999. urtea | 14.369 |

Deien % 30 inguruk nolabaiteko laguntza edo informazioa eskatzen du, eta gainerakoak frogatako deiak dira edo sistemari nahi gabe eragiteagatik egiten direnak.

3) Plantilla.

Plantilla funtzionarioek eta lan kontratudunek edo bitarteko langileek, lanpostuak bete bitartean edo ordezkapenak egiten aritzen direnek, osatzen dute.

Koordinazioko operadore laguntzaileak D mailaren barrenean daude, % 38ko osagarria dute ( % 12, mailakoa, % 20 lanpostukoa eta % 6 txandetan aritzekoa), eta horrez gain, nominaren denborazko osagaiei ( gaueko txanda, jai-egunetako lana eta aparteko orduak, baleude) dagozkien ordainsariak ere jasotzen dituzte.

Txanda hauetan aritzen dira: goizez (7 ordu), arratsaldez (7 ordu) eta gauez (10 ordu).

Txanda bakoitzean langile hauek egoten dira: lan egunetan, 5 goizez, 6 arratsaldez eta 4 gauez; jai egunetan, 6 goizez, 6 arratsaldez eta 4 gauez. Langile gehiago aritzen dira Aste Santuan edo jai-

zubietan, zehazki, koordinazioko 7 operadore laguntzaile goiz eta arratsaldez.

Koordinazioko operadore laguntzaile bat 24 ordutan egoten da aurkitzeko moduan, pertsonak bilatzeko sistemaren bidez. Honi dei egin ahal zaio larrialdi egoeretan edo lan handia dagoenean, unean-unean.

Hauxe izan da plantillaren bilakaera:

| | |
|---|---|
| 1997. urtea | Koordinazioko 19 operadore laguntzaile. |
| | 3 suhiltzaile, koordinazioko operadore laguntzailearen eginkizunetan. |
| | 7 foruzain, koordinazioko operadore laguntzailearen eginkizunetan. |
| GUZTIRA | 29 |
| 1998. urtea | Koordinazioko 25 operadore laguntzaile. |
| | Suhiltzaile 1, koordinazioko operadore laguntzailearen eginkizunetan. |
| | 7 foruzain, koordinazioko operadore laguntzailearen eginkizunetan. |
| GUZTIRA | 33 |
| 1999. urtea | Koordinazioko 27 operadore laguntzaile. |
| | Suhiltzaile 1, koordinazioko operadore laguntzailearen eginkizunetan. |
| | 7 foruzain, koordinazioko operadore laguntzailearen eginkizunetan. |
| GUZTIRA | 35 |

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko apirilaren 10ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin.

---

# Iruñeko alde zaharrean paradore nazional bat paratzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Iruñeko alde zaharrean paradore nazional bat paratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko apirilaren 3ko 29 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera bat egin zuen Iruñeko alde zaharrean paradore nazional bat paratzeari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu zuen. Hona hemen Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuaren ustez Nafarroan dauden azpiegitura turistiko asko eta asko interesgarriak izan daitezke, gure eskaintza modernizatu eta zabaltzeko aukera eskaintzen baitigute. Ildo honetan, Iruñean kokatzea egokia izan daiteke, betiere Ekonomi eta Ogasunaren iritzian ere halakoa baldin bada, kontuan harturik proiektu horiek Ministerio horrek eta Nafarroako Gobernuak batera finantzatzen dituztela.

2.- Azpiegitura turistikoen plangintzaren barruan, Ogasun Ministerioarekin aztertzen ari gara Nafarroako beste toki batzuetan sartzeko aukera, eskaintza orekatzeko lurraldeari dagokionez eta garapenerako bide nagusi turismoa duten aldeak dinamizatzeko.

3.- Tamaina horretako proiektu bat erakartzeko beharrezkoa balitz Nafarroako Gobernuaren diru ekarpena, ekarpen hori egin ahal izateko aurrekontuan dauden mugak aztertuko lirateke.

4.- Ministerioarekin izandako negoziazioetan aukera hori ere aipatu da, beste batzuen artean, eta orain arte aztertutakoaren barrenean dago.

Iruñean, 2000ko apirilaren 10ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# Tafallako Luzuriaga enpresako lan-gatazkari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Mª Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Tafallako Luzuriaga enpresako lan-gatazkari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko apirilaren 3ko 29 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin zuen Tafallako Luzuriaga enpresako lan-gatazkari buruz. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu zuen. Hona hemen Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna.

Kontuan harturik greba horren deialdia bertan behera gelditu dela enpresaren lan hitzarmena izenpetu delako, galderan azaltzen diren gaiei erantzutea alferrikakoa da. Nolanahi ere, adierazi nahi dut aspalditik gaudela harremanetan oraingoz, behintzat, desagerturik dagoen gatazka horretan, eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eskaini zuela bitartekaritzan aritzea arazoari irtenbideak bilatzen laguntzeko.

Iruñean, 2000ko apirilaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# Iruña-Jaca autobiaren ibilbideari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Iruña-Jaca autobiaren ibilbideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 27ko 26 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera bat egin zuen Iruña-Jaca autobiaren ibilbideari buruz. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu zuen. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Parlamentari jaunaren idazkian honako hau esaten da, galderaren bost gaien atariko gisa:

“Iragan abenduan, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak esan zuen azterlan bat egiten ari zirela Iruña eta Jaca lotuko dituen bidearen hainbat ezaugarri zehazteko. Azterlan horrek erabakiko zuen, kontseilariaren esanetan, bide berria zer-nolakoa izanen den –errepidea, hiru karrileko errepidea ala autobia.

Berrikitan, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilari Palacios jaunak Leireko beneditarrei zein Erronkariko Batzarre Nagusiko lehendakariari esan die Iruña-Jaca “autobiaren” bideunea Leireko monasterioaren paretik igaroko dela”.

Atariko gisako horrek zenbait zehaztapen eskatzen ditu:

Lehendabizikoa. Lehen zatian, alegia, “Iragan abenduan, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak esan zuen azterlan bat egiten ari zirela Iruña eta Jaca lotuko dituen bidearen hainbat ezaugarri zehazteko. Azterlan horrek erabakiko zuen, kontseilariaren esanetan, bide berria zer-nolakoa izanen den –errepidea, hiru karrileko errepidea ala autobia” lerroaldean esaten denari dagokionez:

Honako hau izenpetzen duen kontseilariak Iruña-Huesca bideuneari buruzko adierazpen batzuk egin zituen, eta 1999ko abenduaren 3an prentsan argitaratu ziren. Hauexek, alegia:

Diario de Navarra egunkariak honakoa zioen: “Kontseilari Palacios jaunak adierazi du Iruña-Huesca bideunea autobia izanen dela” (albistearen titularra). Sustapen Ministerioaren azterlanak lan ildo hori duela esan zuen. Herrilan kontseilariak, José Ignacio Palacios jaunak atzo adierazi zuen Iruña-Huesca errepideko komunikazioa, Nafarroa zeharkatzen duen tartean autobia izanen dela... Palaciosek esan zuenez, sustapen Ministerioak agindu duen azterlanak autobia egiteko gomendioa eginen duela espero du. Nafarroaren eta Sustapen Ministerioaren arteko protokoloa izenpetu zenetik ardatz horretarako autobia eraikitzea aipatu izan dela beti, gaineratu zuen”.

Diario de Noticias egunkariak, berriz, hauxe zioen: “Palacios jaunak... autobia aipatu zuen Iruña-Huesca bideunerako (albistearen titularra). Kontseilariak proiektuaz egiten ari den azterlanaz izan zuen hizpide. Azterlan horrek zehaztuko ditu komunikazio bide berriaren ezaugarriak: errepidea, hiru karrileko errepidea edo autobia. Halere, Palacios jaunak adierazi zuen Estatuak eta Nafarroako Gobernuak autobia nahiago dutela... Goiz da oraindik esateko zein bide mota izanen den... baina errepideen Plan Zuzentzailean aurreikusirik daude Noain eta Idotzin arteko tartearen bikoizketa eta Ledeako saihesbidea, hilabete batzuen buruan amaiturik egonen den azterlanak dioena dioela”.

Bigarrena._Atarikoaren bigarren zatiak dakarren baieztapena, alegia, “Berrikitan, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilari Palacios jaunak Leireko beneditarrei zein Erronkariko Batzarreko lehendakariari esan die Iruña-Jaca “autobiaren” bideunea Leire-ko monasterioaren paretik igaroko dela” :

Adierazi behar dizut 2000ko martxoaren 12an, igandean, Diario de Navarra egunkariak hauxe zioela, hitzez hitz: “1999ko uztailean (ez berrriki, beraz, bederatzi hilabete aurrerago baizik) Palacios jaunak Leireko prioreari jakinarazi zion Gobernuak errepide berria Leiretik hurbil egiteko asmoa zuela”.

Uztaileko baieztapen horren oinarria da kontseilari honek Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak 1998ko apirilaren 3an egin zuen bilkuran agertzean ere egin zuen adierazpena, besteak beste, hauxe esan baitzuen: “Erregioaren ikuspuntutik, dudarik ez dago Nafarroari interesatzen zaiona, bereziki, lotura-bide hori Aragoi aldean nabarmen hobetzea dela, Erronkari ibarrarekiko loturak erraztuko dituelakoan eta ibar hori Iruñera hurbilagotuko duelakoan (Batzordearen Bilkura Egunkaria, IV. legegintzaldia, 18. zenbakia, 27. orrialdea).

Hirugarrena. Atarikoaren bigarren zatian egiten den baieztapenari, hau da, “Berrikitan, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilari Palacios jaunak Leireko beneditarrei zein Erronkariko Batzarre Nagusiko lehendakariari esan die Iruña-Jaca “autobiaren” bideunea Leire-ko monasterioaren paretik igaroko dela” esateari dagokionez:

Esan beharra daukat, Erronkari Ibarreko Batzarreko lehendakariak 2000ko urtarrilaren 10ean igorritako gutun bati erantzunez, Departamentu honek hauxe jakinarazi ziola:

Zure gutunean Iruña eta Jaca arteko errepide berriaz galdetzen duzu, eta jarraian doakizu nire erantzuna:

1998ko martxoaren 10ean Sustapen Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetza protokolo bat izenpetu zen aurretiko azterlan hau egiteko: “Ebroko ibarretik iparraldera, N-330 eta N-121 errepideen artean, dauden korridoreen konparaziozko azterlana”. Aurretiko azterlanaren izaera zuen eta ukitutako erkidegoen lurralde planekin bat egina zegoen; hori dela eta, jarraipen batzorde bat eratu zen, Nafarroako Foru Komunitateko ordezkariek eta Sustapen Ministeriokoek osaturik.

Iazko urriaren amaieran, Sustapen Ministerioak Iruña-Jaca-Huesca errepide berriaren aurreproiektuaren erredazkio lanak adjudikatu zituen. Haien zenbatekoa 78 milioikoa da eta epea 13 hilabetekoa; beraz, 2000ren amaieran edo 2001en hasieran azterlan horrek amaiturik egon beharko du. Aurreproiektua amaitu aurretik, trazadurak jendaurrean jarriko dira bidezko diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, ez dugu gaur egun behin betiko trazadurarik, baina lasaiago egon zaitezen, jakin ezazu Departamentuaren iritzia zuk ere gutunean azaldu zenuena dela (bertan esaten zenez, “trazadura aldatu eta urtegiaren beste aldera eramatea kaltegarria litzateke Erronkari Ibarraren eta Iruñaren nola Nafarroako beste eskualde batzuen arteko komunikaziorako”).

Argibiderik behar izanez gero jarri harremanetan gurekin, dudarik egin gabe”. Horra, beraz, 2000ko urtarrilaren 10eko gutunaren testua.

Hiru zehaztapen horiek eginda, gure ustetan erantzuna eman diegu atarikoaren ondorioz planteatzen diren gaiei.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

---

# Nekazaritza-errentak hobetzeko neurrien kargura 1999an finantzatutako ekintzei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Mª Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak nekazaritza-errentak hobetzeko neurrien kargura 1999an finantzatutako ekintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko apirilaren 11ko 32 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin zuen nekazaritza-errentak hobetzeko neurrien kargura 1999an finantzatutako ekintzei buruz. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu zuen. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Kontseiluak 1992ko ekainaren 30ean emaniko 2078/92 Erregelamenduak (EEE) Feoga-bermeak % 50arekin kofinantzaturiko laguntzen araubide komunitario bat ezartzen du, ingurumena babestu eta natur ingurunea zaintzeko betebeharrekin bateragarriak diren nekazaritzako ekoizpen metodoen aplikazioa bultzatzeko helburuarekin.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Batasunaren araudi hori aplikatzen du; 1999ko ekitaldian aurrekontuaren bi lerroz baliatu da, honako neurri hauek gauzatzeko:

– 97087-1 lerroa, "PAC delakoaren erreforma. Ingurumenaren arloko programak"

Nekazaritzako prestakuntza.

Nekazaritza ekologikoa edo biologikoa.

Tratamendu fitopatologikoen kontrol integratua zainzuriaren laborantzan.

Azalera unitatearen araberako ardi azienda gutxitzea.

Flora eta faunaren babesa laborantza estentsiboko sistemetan.

Higaduraren kontrako borroka.

Lurren kudeaketa herritarrek erabiltzeko eta aisiarako.

– 97069-3 lerroa, PAC delakoaren erreforma. Ingurumenaren arloko programak, galzorian dauden arraza motak.

Galzorian dauden arraza autoktonoak mantentzea.

Aurten aldaketa hauek izanen dira:

Nekazaritzako prestakuntza Feoga-bermeak kofinantzatu du orain arte, baina aurrerantzean Europako Gizarte Fondoak eginen du.

"Azalera unitatearen araberako ardi azienda gutxitzea" lortzeko neurriak.

"Flora eta faunaren babesa lehorreko laborantza estentsiboko sistemetan", "higaduraren kontrako borroka" eta "lurren kudeaketa herritarrek erabiltzeko eta aisiarako" Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren menpeko Ekosistemen eta Paisajearen Ekologiaren Atalak kudeatuko ditu aurrerantzean.

Nafarroako Landa Garapenerako Programa, berriz, Europako Batasuneko Batzordera igorririk, han onesteko badago ere, gogoratzekoa da nekazaritza eta ingurumenaren arloan zenbait neurri berri proposatzen dituela 2000tik 2006ra bitarteko urteetarako:

– Ekoizpen integratuaren sustapena.

– Nekazaritza ekologikoaren sustapena (egungo laguntzak areagotuz).

– Galzorian dauden arrazak mantendu eta bultzatzea (egungo arrazei Aurizko arraza gehituz)

– Zerealaren monolaborantzarako alternatibak. Flora eta faunaren babesa sistema estentsiboetan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko apirilaren 13an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

# Gobernuak 2000an zehar diruz lagunduko dituen abeltzainen lehiaketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Mª Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Gobernuak 2000an zehar diruz lagunduko dituen abeltzainen lehiaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko apirilaren 11ko 32 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin zuen abeltzainen lehiaketak diruz laguntzeko aurreikuspenei buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Argibideak emanen ditut ondotik, galderen ordena berean:

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak 1997ko otsailaren 17an eman zuen Foru Aginduak eta hura aldatu zuen 1998ko martxoaren 23koak urriaren 19koak 233/1989 Foru Dekretua garatzen dute, eta adierazten dute diruz lagunduko diren erakusketa, lehiaketa eta enkante bakarrak Espainiako azienda arrazen Katalogo Ofizialean arrazo autoktono edo espainiartzat hartzen direnenenak direla.

2. A) Azoka edo ferietarako eskaerak:

Iruñeko Udalarena, zaldi aziendarako (uztailaren 7an eta irailaren 29an).

Tafallako Udalarena, azienda mota guztietarako (urriaren 25ean).

Martzillako Udalarena, zaldi aziendarako (urriaren 12an).

Altsasuko Udalarena, ardi eta zaldi aziendetarako (urrian).

B) Erakusketetarako eskaerak:

Etxarri-Aranazko Udalarena, behi, ardi eta zaldi aziendetarako (azaroaren 30ean).

Lesakako Udalarena, behi, ardi eta zaldi aziendetarako (azaroren 30ean).

C) Lehiaketetarako eskaerak:

Uharte-Arakilgo Aralar-Mendi kultur elkartearena, latxa ardietarako (irailaren 27an).

Aurizko Udalarena, Aurizko arrazako zaldi aziendarako (irailaren 17an).

Aezkoako Hiriberriko Udalarena, arraza pirenaikorako, Aurizko arrazarako eta latxa ardietarako (abuztuaren 20an).

D) Lehiaketa-enkantea:

MAPAk eta Aspinak Zudairin (Ameskoa) antolatua, arraza pirenaikoko aziendarako (irailaren 16 eta 17an).

E) Gaitasun lehiaketarako eskaera

Nafarroako Hipika Federazioak eskatua.

3. Abeltzainen lehiaketa motak eta laguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren 1997ko otsailaren 17ko Foru Aginduan daude arauturik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko apirilaren 13an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# Historia klinikoen artxiboak pribatizatzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentari jaunak historia klinikoen artxiboak pribatizatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 6ko 21 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak galdera bat egin zuen 2000ko otsailaren 18an sare publikoko ospitaleetako historia klinikoak pribatizatzeari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Eman al du urratsik Nafarroako Gobernuak, beste autonomia erkidego batzuetan bezala, historia klinikoen artxiboa pribatizatzeko?

Nafarroako Gobernuak ez du inolako prozedurarik hasi historia klinikoen artxiboak pribatizatzeko.

2.- Zein da Osasun Departamentuaren iritzia zentro publikoetako historia klinikoak pribatizatzeko prozesua hasteari buruz?

Osasun Departamentuak ez du iritzirik gai horri buruz, ez baitu pribatizazio hori egiteko asmorik.

3.- Osasun Departamentuaren ustez, neurri hori Osasun Publikoa pribatizatzeko helburua lortzearren emandako beste pauso bat al da?

Ez da hala, inondik inora ere, hori egiteko pausorik bat ere ez delako eman.

4.- Osasun Departamentuaren ustez, neurri hori Datuak Babesteari buruzko Legearen eta informazio horien konfidentzialtasunaren aurkakoa izan daiteke?

Osasun Departamentuaren iritziz, noizbait eginen balitz pribatizazioa, aldez aurretik berme juridiko guztiak beharko lirateke osasun arloko legeak bete eta betearazteko, baita konfidentzialtasunaren eta datuen babesaren arloko berariazkoak ere.

5.- Gaixoak berariaz eman beharko du bere baimena datu horiek errentagarritasun ekonomikoa helburu duen enpresa pribatu bati emateko?

Balizko kasu horretan, berriz ere diogu, gurean ez baitugu horrelakorik, gure ustez edozein enpresak bete beharko luke arlo horretan aplikatzekoak diren legeak.

Iruñean, 2000ko otsailaren 18an

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 3an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

# Tafallako eskualdeko inbertsio plan bati buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Tafallako eskualdeko inbertsio plan bati buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko apirilaren 3ko 29 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera bat egin zuen Tafallako eskualdeko inbertsio planari buruz. Idatzizko erantzuna eskatu zuen. Hona hemen Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1) Industrialdeak sustatu eta egiteko jarduketen ondorioz, Tafallan aurreikusirik dauden inbertsioek, 1999tik 2001era bitarte, 21.596 milioi pezetako zenbatekoa hartzen dute, egun.

Zenbateko horretatik, 20.154 milioi pezeta enpresek egin beharreko inbertsio proiektuei dagozkie eta 1.442 milioi pezeta La Navakoa handitzeko industrialdea eta Caparrosokoa eta Melidakoa urbanizatzeko dira.

2) Lehenago aipatutako proiektuak enpresek egin ditzaten egun hitzarturik dauden dirulaguntzek 3.565 milioi pezeta hartzen dute, eta horietatik 179 milioi ordaindurik daude. Gainerakoa behar diren egiaztapenak egin ondotik ordainduko da.

Era berean, lurrak erosteko eta obren egiaztapenetarako 128 milioi pezeta ordaindu dira Caparrosoko industrialdean. Melidako industrialdeari dagokionez, udal industrialdeak sustatzeko laguntzen onuraduna da, eta dirulaguntza ordaindu zaio, 9,4 milioi pezetako zenbatekoarekin.

3) La Navako industrialdea handitzeko 1999an Nafarroako Gobernuaren eta SEPESen arteko lankidetza akordioaren addenda bat izenpetu zen, estatuko sozietateak industrialdearen handitzea sustatzeko. Industri Departamentuak eta NASUINSAk SEPESekin batera aritzen dira lanean industrialdea garatzeko, eta horren ondorioz, horren eraginpeko udalekin ere hitzarmenak izenpetu dira eta harremanak ezarri finken jabeekin, lurrak erosteko akordioak, bi alderdien artekoak, lortzeko.

Gaur egun, SEPES udalez gaindiko plan sektoriala prestatzen ari da, eta aurtengo lehen seihilabetean aurkeztuko da tramitatzeko.

Industrialdeak hartuko duen azalera 200.000 $m^2$ ingurukoa izanen da, Erriberri eta Tafallako udalerrietan, eta garapenaren kostua, guztira, 1.000 milioi pezeta izanen dela kalkulatu da; nolanahi ere, balorazioak plan sektoriala amaitutakoan zehaztuko dira, eta are zehatzagoak izanen dira urbanizazio proiektua egiten denean.

Azkoiengo Udalak sustatutako industrialdea handitzeari dagokionez, berriz, herri horretako udala udal planaren aldaketa tramitatzen ari da orain, eta 33,6 milioi pezeta daude hitzarturik dirulaguntzetan, udal industrialdeak sustatzeko laguntza gisa.

4) 1999an amaitu zirenez gain (Arguedas, Cabanillas eta Mendabia), gaur egun beste hauek daude obretan: Lekunberri, Castejón eta Caparroso. Proiektuan daudenak, azkenik, hauexek dira: Fustiñana, Milagro, Gares, Ultzama, Urdiain, Altsasu eta Viana.

Era berean, aurretiko azterlanak ere, batzuk aurreratuago beste batzuk baino, egiten ari dira industrialde hauetarako: Antzin, Azagra, Cadreita, Faltzes, Irunberri, Larraun, Meseta de Salinas, Rocafortekoa handitzea, Funes eta Bortziriak.

Iruñean, 2000ko apirilaren 14an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# Eskolako ikasleen armairuen erabileraren jarraipena egiteari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Delgado López foru parlamentari andreak eskolako ikasleen armairuen erabileraren jarraipena egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko apirilaren 3ko 29 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Delgado López andreak galdera bat egin zuen eskolako ikasleen armairuen erabileraren jarraipena egiteari buruz. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu zuen. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Inbertsioen Zerbitzuaren ardura izan da ikastetxeetako ikasleen armairuen erabileraren jarraipena egitea. Joan zen ikasturtean inkesta bat egin zen ekipamendu hori duten 32 ikastetxetan; horietatik 16k erantzun zuten. Datu horietatik atera den ondorioa da ikasleek armairuen % 80 erabiltzen dutela. Bi ikastetxetan ez dute armairu horiek erabiltzeko premiarik somatzen. Inkestari erantzun dioten zuzendaritza taldeek (% 50ek) esperientzia ona dela diote. % 13k dio ez direla beharrezkoak. Ikastetxeek armairuak nori eman erabakitzeko garaian, lehentasuna ematen diete desgaitasunen bat dutenei, ikastetxetik urruti bizi direnei eta aldi baterako lesioren bat dutenei.

Bi urte dira ekipamendu hau ezarri zenetik bigarren hezkuntzako 32 ikastetxetan, baina ordutik beste 4 ikastetxek baizik ez dute eskaera egin. Hiruren kasuan ez da ezarri ikastetxeek beraiek beste premia batzuei ematen zietelako lehentasuna.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Mª Laguna Peña

# Lurzati berrantolamenduari dagokionez aurreikusitako jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Mª Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak lurzati berrantolamenduari dagokionez aurreikusitako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko apirilaren 3ko 29 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin zuen lurzati berrantolamenduari dagokionez aurreikusitako jarduketei buruz. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1. Ekitaldi honetarako eta hurrengorako lurzati berrantolamendua dela-eta aurreikusiriko jarduketen zerrenda erantsirik du erantzun honek.

2. eta 3. Lurzatu berrantolamenduaren arloko jarduna ez da afera tekniko hutsa, adibidez, obren eta proiektuen exekuzioa, kasu horretan egutegia finkatu ahal dugulako. Lurzati berrantolamenduko prozesu batean bestelako osagaiak ere sartzen dira, esate baterako alderdi sozialak kontuan hartzen dituen osagaia, hala nola, ukitutako jabea nekazaria den ala ez, jabe horren adina, auzokoen arteko harremanak, lurraren balio afektiboa, eta abar

Hori dela eta, gai horretako legeetan bertan prozedura zabala aurreikusirik dago jendaurreko tramiterako, ukitutakoen segurtasun juridikoa bermaturik egon dadin. Horren ondorioz, alegazioak eta errekurtsoak ebatzi beharra izaten da, eta horien kopuruak prozedura atzeratu dezake. Halere, ahalegina egiten da aurrekontuetako aurreikuspenak programatutako jarduketei loturik joan daitezen; halatan, ez da gorabehera handirik gertatzen, gehienetan, eta onetsitako aurrekontua betetzen ohi da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko apirilaren 18an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

JABEGOA BERRANTOLATZEKO ETA
LURZATI BERRANTOLAMENDUKO LANAK
LERROA: 97009-9

FINKEN ZUINKETA 2000. URTEA

| ALDEA | PROIEKTATUTAKO AURREKONTUA | 2000 | 2001 | 2002 | AZALERA H. |
|---|---|---|---|---|---|
| ETAIO II | 834.000 | 834.000 | -- | -- | 326 |
| EUSA | 834.000 | 834.000 | -- | -- | 298 |
| ERREA | 642.000 | 642.000 | -- | -- | 425 |
| GARTZARON | 358.500 | 358.500 | -- | -- | 367 |
| IHABEN | 203.900 | 203.900 | -- | -- | 310 |
| LARRAGA | 20.200.000 | 20.200.000 | -- | -- | 6.485 |
| LEZAUN | 1.569.200 | 1.569.200 | -- | -- | 1.888 |
| MADOTZ | 562.200 | 562.200 | -- | -- | 230 |
| NABASKOZE leh. lurra | 4.201.040 | 4.201.040 | -- | -- | 608 |
| ERRAZKIN | 1.763.800 | 1.763.800 | -- | -- | 486 |
| MIRANDA DE ARGA | 9.267.000 | 9.267.000 | -- | -- | 5.160 |
| ZALBA | 750.000 | 750.000 | -- | -- | 253 |
| GUZTIRA | 41.185.640 | 41.185.640 | | | 16.836 |

2000 URTEKO AURREKONTUAK –JABEGOA BERRANTOLATZEKO ETA
LURZATI BERRANTOLAMENDUKO LANAK
LERROA: 97009-9

| ALDEA | PROIEKTATUTAKO AURREKONTUA | 2000 | AZALERA H. |
|---|---|---|---|
| DEIKAZTELU | | | |
| Urte askotakoa | 371.627.171 | 2.450.516 | 2.720 |
| FALTZES I | | | |
| Urte askotakoa | 438.531.502 | 58.636.781 | 9.295 |
| FALTZES II | | | |
| Urte askotakoa | 261.766.689 | 8.488.455 | |
| FALTZES III | | | |
| Urte askotakoa | 449.617.203 | 44.915.603 | |
| LATASA | | | |
| Urtekoa | 17.989.703 | 469.399 | 310 |
| USETXI | | | |
| Urtekoa | 21.460.661 | 1.227.357 | 134 |
| BIZKARRETA-GEREND. | | | |
| Urte askotakoa | 132.752.806 | 46.818 | 755 |
| NABASKOZE | | | |
| Hainbat urtetakoa | 224.927.053 | 138.976.416 | 608 |
| SAGASETA | | | |
| Urtekoa | 28.231.167 | 14.546.855 | 313 |
| ALDUNATE | | | |
| Urtekoa | 24.192.090 | 18.047.299 | 100 |

| ALDEA | PROIEKTATUTAKO AURREKONTUA | 2000 | AZALERA H. |
|---|---|---|---|
| LOS ARCOS | | | |
| Hainbat urtetakoa | 768.827.005 | 215.278.106 | 5.056 |
| LEATXE | | | |
| Hainbat urtetakoa | 191.324.383 | 110.450.935 | 1.399 |
| IGUZKITZA-AZKETA | | | |
| Hainbat urtetakoa | 144.959.311 | 73.774.512 | 1.045 |
| ARBEITZA | | | |
| Anual | 75.454.668 | 33.835.981 | 390 |
| ERRAZKIN | | | |
| Hainbat urtetakoa | 89.018.119 | 50.000.003 | 486 |
| MIRANDA DE ARGA | | | |
| Hainbat urtetakoa | 535.886.747 | 80.000.000 | 5.160 |
| ZANGOZA | | | |
| Anual | 85.417.620 | 19.639.629 | 2.557 |
| MENDIGORRIA | | | |
| Urtekoa | 59.830.139 | 3.484 | 3.044 |
| ZALBA | | | |
| Urtekoa | 18.929.612 | 4.673.934 | 253 |
| MENDIOROTZ II | | | |
| Urtekoa | 24.522.750 | 1.415.927 | 244 |
| OZKARITZ | | | |
| Urtekoa | 23.494.689 | 555.646 | 295 |
| LIZOAIN II | 21.160.256 | 1.284.139 | 103 |
| ARTAXONA HEGOA | | | |
| Urtekoa | 23.275.567 | 41.362 | |
| ETAIO II | | | |
| Urtekoa | 56.000.000 | 56.000.000 | 326 |
| EUSA | | | |
| Urtekoa | 42.606.534 | 42.606.534 | 298 |
| ERREA | | | |
| Urtekoa | 42.152.760 | 42.152.760 | 425 |
| GARTZARON II | | | |
| Urtekoa | 21.781.955 | 21.781.955 | 367 |
| IHABEN | | | |
| Urtekoa | 35.000.000 | 35.000.000 | 310 |
| LARRAGA | | | |
| Hainbat urtetakoa | 672.950.193 | 60.000.000 | 6.485 |
| LEZAUN | | | |
| Urtekoa | 51.002.777 | 51.002.777 | 1.888 |
| MADOTZ | | | |
| Urtekoa | 66.335.275 | 66.335.275 | 230 |
| ARELLANO | | | |
| Osagarria | 12.000.000 | 12.000.000 | 997 |
| TRAIBUENAS | 127.000.000 | 100.000.000 | 729 |
| VALDEGA | 69.000.000 | 54.000.000 | 392 |
| ZARRAKAZTELU | | | |
| (La Esperanza) | 69.000.000 | 60.000.000 | 422 |
| RIBAFORADA | 105.000.000 | 11.000.000 | 693 |
| MENDABIA II | 147.000.000 | 27.000.000 | 843 |
| MURILLO EL FRUTO | 104.000.000 | 54.000.000 | 593 |
| GARES | 35.000.000 | 15.000.000 | 176 |
| ABARTZUZA | 5.000.000 | 5.000.000 | 30 |
| GUZTIRA | | 1.591.638.458 | |

2001 URTEKO AURREKONTUAK –JABEGOA BERRANTOLATZEKO ETA LURZATI BERRANTOLAMENDUKO LANAK

| ALDEA | PROIEKTATUTAKO AURREKONTUA | 2001 | AZALERA H. |
|---|---|---|---|
| LOS ARCOS | | | |
| Hainbat urtetakoa | 768.827.005 | 213.989.722 | 5.056 |
| ERRAZKIN | | | |
| Hainbat urtetakoa | 89.018.119 | 29.018.119 | 486 |
| MIRANDA DE ARGA | | | |
| Hainbat urtetakoa | 535.886.747 | 227.866.936 | 5.160 |
| BELASKOAIN | 66.000.000 | 66.000.000 | 547 |
| ZARRAKAZTELU | 795.000.000 | 35.000.000 | 6.627 |
| IRUNBERRI II | 161.000.000 | 30.000.000 | 1.342 |
| ANDOSILLA II | 174.000.000 | 10.000.000 | 1.4446 |
| BARGOTA | 254.000.000 | 26.000.000 | 2.116 |
| LODOSA | 362.000.000 | 20.000.000 | 3.014 |
| ELIZAGORRIA | 180.000.000 | 15.000.000 | 1.503 |
| FUNES | 355.000.000 | 10.000.000 | 2.959 |
| ERRO | 135.000.000 | 135.000.000 | 876 |
| BEINTZA-LABAIEN | 83.000.000 | 83.000.000 | 555 |
| RIBAFORADA | 150.000.000 | 94.000.000 | 693 |
| LARRAGA | 961.357.419 | 312.000.000 | 6.485 |
| MENDABIA II | 147.000.000 | 120.000.000 | 843 |
| MURILLO EL FRUTO | 104.000.000 | 50.000.000 | 593 |
| GARES | 35.000.0000 | 20.000.000 | 176 |
| ARGUEDAS | 193.000.000 | 50.000.000 | 1.136 |
| CABANILLAS | 103.000.000 | 55.000.000 | 610 |
| VIANA II | 60.000.000 | 33.000.000 | 352 |
| GUZTIRA | | 1.634.874.777 | |

2000. URTEKO AURREKONTUAK.1 – JABEGOA BERRANTOLATZEKO ETA LURZATI BERRANTOLAMENDUKO LANAK

FINKEN ZUINKETA

| ALDEA | PROIEKTATUTAKO AURREKONTUA | 2001 | AZALERA H. |
|---|---|---|---|
| ANDOSILLA II | 12.356.000 | 12.356.000 | 3.867 |
| BELASKOAIN | 2.316.750 | 2.316.750 | 547 |
| ZENBORAIN II | 467.350 | 467.350 | 120 |
| FUNES II | 7.722.500 | 7.722.500 | 2.959 |
| XABIER | 463.350 | 463.350 | 1020 |
| ELIZAGORRIA | 2.100.520 | 2.100.520 | 1.503 |
| IRUNBERRI II | 2.316.750 | 2.316.750 | 1.342 |
| OLAGÜE | 772.250 | 772.250 | 737 |
| BARGOTA II | 8.000.000 | 8.000.000 | 2.116 |
| BEINTZA-LABAIEN | 3.000.000 | 3.000.000 | 555 |
| CABANILLAS (leh. lurra) | 3.000.000 | 3.000.000 | 609 |
| GUZTIRA | 42.515.470 | 42.515.400 | |

## 2000 URTERAKO AURREIKUSPENAK. “AZTERLANAL ETA PROIEKTUAK. LERROA: 97020-0

| ALDEA | B. BEHIN-BEHINEKOA | B. BEHIN-BETIKOA | A. BEHIN-BEHINEKOA | A. BEHIN-BETIKOA | AZALERA H. | LANAK | INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN AZTERLANA | ARKEOLOG. | TITULUAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ABATORES | – | 8.500.000 | – | – | 3.317 | – | – | – | – | |
| ALLO | 16.000.000 | – | – | – | 3.472 | – | 5.838.000 | – | – | |
| ARBEITZA | – | – | – | – | 390 | 1.500.000 | – | – | – | |
| IGUZKITZA-AZKETA | – | – | – | – | 1.045 | 3.500.000 | – | – | – | |
| BARGOTA II | – | – | 9.050.000 | – | 2.116 | 10.500.000 | – | – | – | |
| BEINTZA-LABAIEN | – | – | 3.600.000 | – | 555 | – | – | – | – | |
| CABANILLAS (leh-lurra) | – | – | 3.500.000 | – | 609 | – | – | – | – | |
| ZARRAKAZTELU (gainerakoa) | – | 15.000.000 | – | – | 6.627 | – | 10.596.000 | – | – | |
| ERRO | – | – | – | – | 872 | – | 1.918.000 | – | – | |
| LODOSA | – | - | – | – | 3.014 | – | 4.545.000 | – | – | |
| MADOTZ | – | – | – | 800.000 | 468 | – | – | – | – | |
| MENDIGORRIA | – | – | – | 8.000.000 | 3.044 | – | – | | – | |
| SALDIAS | 2.500.000 | – | – | – | 450 | – | – | – | – | |
| SANSOL | 5.000.000 | – | – | – | 1.288 | – | 2.545.000 | – | – | |
| TORRES DEL RIO | – | 3.400.000 | – | – | 1.217 | – | – | – | – | |
| UNCITI II | – | 850.000 | – | – | 228 | – | 1.357.000 | – | – | |
| OTZKOIDI | – | – | – | – | 380 | – | 1.357.000 | 228.000 | – | |
| USTAIZE | – | – | – | – | 350 | – | – | 210.000 | – | |
| LERGA | 9.327.000 | – | – | – | 2.024 | – | – | – | – | |
| BERBINTZANA II | 2.700.000 | – | – | – | 634 | – | – | – | – | |
| BEARIN | 1.843.000 | – | – | – | 400 | – | 1.357.000 | 240.000 | – | |
| INGURUMEN AZTER-LANERAKO GIDALIBURUA | – | – | – | – | – | – | 6.325.773 | – | – | |

| ALDEA | B. BEHIN-BEHINEKOA | B. BEHIN-BETIKOA | A. BEHIN-BEHINEKOA | A. BEHIN-BETIKOA | AZALERA H. | LANAK | INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN AZTERLANA | ARKEOLOG. | TITULUAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ANDOSILLA II (leh-lurra) | – | – | 12.583.000 | – | 3.867 | – | – | – | – | |
| ANDOSILLA II (regad.) | – | – | 5.255.600 | – | | – | – | – | – | |
| AZUELO | – | 2.850.000 | – | – | 1.069 | – | 2.215.000 | – | – | |
| TORRALBA DEL RIO | – | 3.722.800 | – | – | 1.258 | – | 2.500.000 | – | – | |
| BELASKOAIN | – | 1.875.113 | – | – | 547 | – | 1.428.000 | – | – | |
| ZENBORAIN II | 700.000 | 466.667 | – | – | 120 | – | – | – | – | |
| ETAIO II | – | – | – | – | 326 | 2.500.000 | – | – | – | |
| FUNES II (lehorreko-lurrak eta eraldakuntza) | – | – | 5.710.503 | – | 2.959 | 10.000.000 | – | – | – | |
| GARTZARON | – | – | – | 650.652 | 367 | 1.467.946 | – | – | – | |
| IHABEN | – | – | – | 693.785 | 310 | 1.500.000 | – | – | – | |
| XABIER | 1.069.900 | 713.267 | – | – | 1.020 | – | 2.141.000 | 506.000 | – | |
| ELIZAGORRIA | – | – | 2.542.138 | 1.694.759 | 1.503 | 9.122.536 | – | – | – | |
| LEOTZ | 12.917.052 | – | – | – | 9.420 | – | – | 5.181.000 | | |
| LEZAUN | – | – | – | 2.012.286 | 1.888 | – | – | – | – | |
| IRUNBERRI II | – | 3.379.178 | – | – | 1.342 | – | 2.626.000 | – | – | |
| MONTE ALTO | – | – | 5.864.384 | 3.944.182 | 1.945 | – | – | – | – | |
| OLAGÜE | 1.730.726 | 1.153.817 | – | – | 737 | – | – | 442.000 | | |
| ERRIBERRI | 18.803.620 | 12.535.747 | – | – | 9.000 | – | – | – | – | |
| LARRAGA | – | – | – | 12.832.159 | 6.485 | 34.218.765 | – | – | – | |
| ONGOTZ | – | – | – | – | 360 | – | – | 216.000 | – | |
| ARDAITZ | – | – | – | – | 120 | – | 1.357.000 | 72.000 | – | |

| ALDEA | B. BEHIN-BEHINEKOA | B. BEHIN-BETIKOA | A. BEHIN-BEHINEKOA | A. BEHIN-BETIKOA | AZALERA H. | LANAK | INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN AZTERLANA | ARKEOLOG. | TITULUAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| CABANILLAS (ureztatze-lurrak) | -- | 4.400.200 | 6.600.300 | -- | 609 | -- | 1.154.000 | -- | -- | |
| MENDABIA II (Rubios Altos) | -- | -- | 6.913.600 | 4.609.052 | 841 | -- | -- | -- | -- | |
| GARES | -- | -- | 4.139.000 | 2.759.400 | 170 | -- | -- | -- | -- | |
| VIANA II | -- | -- | 3.347.024 | 2.249.300 | 395 | -- | 1.055.000 | -- | -- | |
| ARGUEDAS | -- | -- | 3.092.455 | 2.061.600 | 1.136 | -- | -- | -- | -- | |
| RIBAFORADA | -- | -- | -- | 4.363.979 | 693 | -- | -- | -- | -- | |
| AZAGRA (Eraldakuntza) | -- | -- | -- | -- | 1.509<br>898 fincas | -- | -- | -- | 1.706.200 | |
| AZKOIEN-MARTZILLA | -- | -- | -- | -- | 500<br>161 fincas | -- | -- | -- | 305.900 | |
| ZARRAKAZTELU La Esperanza | -- | -- | -- | -- | 422<br>428 fincas | -- | -- | -- | 813.200 | |
| TRAIBUENAS | -- | -- | -- | -- | 729<br>258 fincas | -- | -- | -- | 490.200 | |
| MIRANDA DE ARGA | -- | -- | -- | -- | 5.160<br>911 fincas | -- | -- | -- | 1.730.900 | |
| CAPARROSO | -- | -- | -- | -- | 1.190<br>925 fincas | -- | -- | -- | 1.757.500 | |
| SANTAKARA | -- | -- | -- | -- | 203<br>36 fincas | -- | -- | -- | 68.400 | |
| GUZTIRA | 72.591.298 | 58.846.789 | 72.198.004 | 46.671.154 | | 74.309.247 | 50.314.773 | 7.095.000 | 6.872.300 | 388.898.565 |

## 2001. URTEKO AURREKONTUAK - “AZTERLANAK ETA PROIEKTUAK”“

| ALDEA | B. BEHIN-BEHINEKOA | B. BEHIN-BETIKOA | A. BEHIN-BEHINEKOA | A. BEHIN-BETIKOA | AZALERA H. | LANAK | INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN AZTERLANA | ARKEOLOG. | TITULUAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ANDOSILLA II | | | | 9.819.937 | | 24.380.637 | 3.867 | | | |
| AZUELO | | | 3.815.321 | 2.543.547 | | 3.066.487 | 1.069 | | | |
| BELASKOAIN | | | | 1.875.113 | | | 547 | | | |
| ZENBORAIN II | | | 700.000 | 466.667 | | 1.844.546 | 120 | | | |
| FUNES II | | | | | | | 2.959 | | | |
| XABIER | | | | 1.028.129 | | 2.521.534 | 1.020 | | | |
| ELIZAGORRIA | | | | | | | 1.503 | | | |
| LEOTZ | | 8.611.368 | 12.917.052 | 8.611.368 | | 21.729.062 | 9.420 | 14.808.500 | | |
| IRUNBERRI II | | | | 3.379.178 | | 2.218.338 | 1.342 | | | |
| MONTE ALTO | | | | | | | 1.945 | | | |
| OLAGUE | | | | 1.153.817 | | 1.844.546 | 737 | 2.160.000 | 442.200 | |
| ERRIBERRI | | | 18.803.620 | | | 20.431.427 | 9.000 | 8.750.000 | 5.400.000 | |
| TORRALBA DEL RÍO | | | 6.020.093 | 4.013.395 | | | 1.258 | | | |
| ALLO | | 10.500.000 | | | | | 3.472 | | | |
| BARGOTA II | | | | 6.000.000 | | | 2.116 | | | |
| BEINTZA-LABAIEN | | | | 2.500.000 | | 4.500.000 | 555 | | | |
| BERBINTZANA II | 4.000.000 | | | | | | 634 | 1.176.000 | 380.000 | |
| CABANILLAS (leh-lurra) | | | | 2.400.000 | | 6.500.000 | 609 | | | |
| ZARRAKAZTELU (gainerakoa) | | | 22.000.000 | | | | 6.627 | | | |
| ERRO | | | | 1.600.000 | | | 872 | | | |
| LERGA | 2.000.000 | | | | | | 2.024 | 3.650.000 | 1.214.000 | |
| SALDIAS | | 1.750.000 | | | | | 450 | 1.508.000 | 270.000 | |
| SANSOL | | 3.300.000 | | | | | 1.088 | | | |
| TAFALLA | 27.000.000 | | | | | | | | | |
| TORRES DEL RÍO | | | 5.000.000 | | | | 1.217 | | | |
| UNTZITI II | | | 1.300.000 | | | | 228 | | | |
| CABANILLAS (ureztatze-lurrak) | | | | 4.400.200 | | | 609 | 1.521.000 | 365.000 | |
| SAN ADRIAN | | | | | | | 600 | 1.146.000 | 360.000 | |
| ELO I | | | | | | | 200 | 904.000 | 120.000 | |
| SANTSOAIN | | | | | | | 110 | 769.000 | 66.000 | |
| USTAIZE | | | | | | | 350 | 1.342.000 | 210.000 | |
| GUZTIRA | 33.000.000 | 24.161.368 | 70.556.086 | 49.791.351 | | 89.036.577 | | 37.734.500 | 8.827.200 | 313.107.082 |

MATERIAL TEKNIKOA LERROA: 31150-8

2000. URTERAKO AURREKONTU ZENBATETSIAK

| ALDEA | AURREKONTU ZENBATETSIA PTA. | KONTZEPTUA |
|---|---|---|
| VILLAFRANCA | 8.619.020 | HEGALDIA |
| SAN ADRIAN | 3.635.957 | HEGALDIA |
| USTAIZE | 2.956.600 | ORTOFOTOK |
| ELO II | 2.217.000 | ORTOFOTOK |
| UNTZITI II | 343.161 | KARTOGRAFIA |
| USTAIZE | 1.712.529 | KARTOGRAFIA |
| ELO II | 2.457.000 | KARTOGRAFIA |
| ONGOTZ | 1.445.535 | KARTOGRAFIA |
| OZKOIDI | 400.491 | KARTOGRAFIA |
| GUZTIRA | 23.787.293 | |

# Euririk egiten ez duelako soroek bizi duten egoera larriari aurre egiteko aurreikusitako ekintzei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Mª Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak euririk egiten ez duelako soroek bizi duten egoera larriari aurre egiteko aurreikusitako ekintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko apirilaren 11ko 32 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin zuen soroek bizi duten egoera larriari aurre egiteko aurreikusitako ekintzei buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak aspaldidanik du egina nekazaritzako aseguruen aldeko apustua, gerta daitezkeen baldintza meteorologiko ez-ohikoen ondorioei aurre egiteko sistemarik onena direlakoan; halere, aurtengo lehortea arintzen hasirik dago udaberriko euriei esker.

Zerealak izaten ohi dira labore kaltetuenak, batez ere Nafarroako Erriberan. Gerta daitezkeen kalteak neguko zerealen aseguru integralean (N.Z.A.I.) sarturik daude; aseguru horien kostuaren % 41 ENESAren dirulaguntzarekin ordaintzen da, eta Nafarroako Gobernuak ere, irailaren 27ko 487/1999 Foru Dekretua aplikatuz, beste dirulaguntza osagarri bat, ENESAk emandako dirulaguntzaren ehuneko % 70erainokoa, alegia. Lekadunen laboreetan izandako kalteak lekadunen aseguru integralak (L..A.I.) estaltzen ditu.

Esandakoaren argigarri, hona urrekontuetan aseguruen politikari laguntzeko izaten ohi den kontusailaren bilakaera:

1994. urtea........................ 106,500 milioi pezeta.
1995. urtea ....................... 151,750 milioi pezeta.
1996. urtea ....................... 200,0 milioi pezeta.
1997. urtea ....................... 400,0 milioi pezeta.
1998. urtea ....................... 443,0 milioi pezeta.
1999. urtea ....................... 443,0 milioi pezeta.
2000. urtea ....................... 480,0 milioi pezeta.

Nolanahi ere, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua harremanetan dago etengabe Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren Lehorteetarako Bulego Iraunkorrarekin eta behar den informazioa igortzen du hara, egoera klimatikoa zein den ikusirik eta ez-ohikoa gertatuz gero, Nafarroan aplikatu ahal izateko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuaren V. tituluan, Hondamenezko Kalteak izenekoan, aseguru planetan sarturik ez dauden arriskuetarako xedatutakoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko apirilaren 18an.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikaduran Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# Mahasti berrien kopurua, Europako Batasuneko Erregelamenduari jarraikiz, banatzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentari jaunak mahasti berrien kopurua, Europako Batasuneko Erregelamenduari jarraikiz, banatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko apirilaren 11ko 32 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak galdera bat egin zuen mahasti berrien kopurua, Europako Batasuneko Erregelamenduari jarraikiz, banatzeari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Mahastiak landatzeko eskubideak esleitzeko prozedura nola dagoen ikusirik, eta Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Estazioak emandako datuen arabera, ondotik ematen da eskubideen eskatzaileen zerrenda, 2000ko apirilaren 11koa, baita zerrenda hori interpretatzeko klabeak ere. Prozedura behin betikoz bururutik ez dagoenez, zerrenda horretan ageri diren gaiez gain beste batzuk ere zehaztu ahal izanen dira aurrerago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko apirilaren 18an.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikaduran Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

(Oharra: Aipatu zerrenda foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

# Herri-ondasunen defentsan Gobernuak 2000n zehar finantzatuko dituen ekintzei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Mª Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak herri-ondasunen defentsan Gobernuak 2000n zehar finantzatuko dituen ekintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko apirilaren 11ko 32 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin zuen herri-ondasunen defentsa finantzatzeko aurreikusiriko ekintzei buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna.

Galderak egindako ordena berean erantzunen dut:

1. Aurrekontuko 90019-8 lerroan, “Herri-ondasunen defentsa” izenekoan, 55 milioi daude. Orain arte honakoak finantzatu dira diru horren kargura:

| | |
|---|---|
| Gorriti (jabetza fiduziarioa kendu eta herri ondasuna berreskuratzea) | 8.700.000 pezeta |
| Caparroso (bazkatokia kentzea) | 8.245.000 pezeta |
| Azkoien (larreak baloratzea bazkatokia kentzeko) | 689.040 pezeta |
| Mendigorria (finka erostea herri ondasunak handitzeko) | 2.446.000 pezeta |

Ebazteko dago:

| | |
|---|---|
| Mendigorria Udalari diru ordaina ematea herri ondasunen balioa gutxitzeagatik | 41.638.150 pezeta |
| Eguesibar (Egulbatiko Jaurerria erostea) | 29.700.940 pezeta |

2. Lehenbiziko idatz-zatiaren erantzunean onartu diren eskaerak ageri dira. Ebazteko daudenen artean, berriz, Mendigorriako Udalarena onartzeko asmoa dago, aurrekontuko dirua ikusirik.

3. Gobernuko teknikarien jarduketak:

1997. urtea:

– Desafektazio espedienteak: 34.

– Herri ondasunen kontrako alegazioen ebazpena: 103 toki entitate eta 192 lurzati.

– Katastroa aldatzeko eskaerak: 135.

– Ediktuen txostena: 219.

– Dirulaguntzak: 9 espediente.

– Transakzio hitzarmenak: 3 onetsirik. Prozesuan: 3.

1998. urtea:

– Desafektazio espedienteak: 59.

– Herri ondasunen kontrako alegazioen ebazpena: 56 toki entitate eta 70 lurzati, 19 alegazio Lurzati Berrantolamenduko eremuetan eta Landalurren Katastroaren kontra aurkezturiko 5 alegazio.

– Katastroa aldatzeko eskaerak: 193.

– Ediktuen txostena: 164.

– Dirulaguntzak: 3.

– Transakzio hitzarmenak: prozesuan: 6.

1999. urtea:

– Desafektazio espedienteak: 68.

– Herri ondasunen kontrako alegazioen ebazpena: 63.

– Katastroa aldatzeko eskaerak: 208.

– Ediktuen txostena: 131.

– Dirulaguntzak: 10.

– Transakzio hitzarmenak: amaiturik: 2. Prozesuan: 5.

Diruz lagundutako espedienteak, herri ondasunen defentsaren ondorioz sortutako gastu judizialak edo Administraziokoak ez diren pertsonek egindako mugapenak direla-eta.

1997. urtea: ................ 5 espediente.

1998. urtea: ................ 2 espediente.

1999. urtea: ................ 2 espediente.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko apirilaren 18an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

# HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* ..........................................................................................................................................

*Helbidea* ..................................................................................................................................................

*Telefonoa* ............................................................ *Hiria* ..........................................................................

*P. K.* ............................................................ *Probintzia* ..........................................................................

---

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 6.200 | pta. |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 145 | » . |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 180 | » . |

IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

**NAFARROAKO PARLAMENTUA**

«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»

Arrieta 12, 3

31002 IRUÑA

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A.—Artika (Nafarroa).

Lege Gordailua: NA–363-1995

Paper ekologiko birziklatua